

Bizentetar Ikastetxea

Gure Ikastetxea Karitateko Alaben Eskola Katoliko bezala definitzen da, bere hezkuntza era San Bizente Paul eta Santa Luisa Marillak gure fundatzaileen karisman oinarritzen duena.

Bizentetar Ikastetxea garen aldetik berezko estiloaz, kalitatezko irakaskuntzaz konprometitzen gara, Ebanjelioaren Berri Ona denei adieraziz eta behartsuenen atentzioari lehentasuna eskainiz.

Ikasleen formakuntza integrala, pertsonaren, bizitzaren eta munduaren kristau ikuspegiaren arabera; gizartea eraldatu eta hobetzeko aktiboki parte hartu dezaten prestatzea, hori da gure helburua.



Bizentetar Ikastetxeen hezkuntza estiloaren printzipio inspiratzaileak

1. **Ahulenen aldeko aukera**, ahulezia hori maila ekonomikoan, gaitasun intelektualean zein beste edozein arlotan egon.
2. **Ebanjelioaren baloreen bizipena**, horien bidez agertzen baitugu Jainkoak maite gaituela.
3. **Juztiziaren eta elkartasun unibertsalaren aldeko konpromisoa**, gizartea eraldatu eta hobetzeko partehartze aktiboa eskainiz
4. **Xalotasunean oinarritutako eskola harreman giroa**.
5. **Bizi eta naturarekiko errespetua**, zientziaren eta teknologiaren aurrean erantsunkizuna sustatuz

Colabora:



Antolakuntza kultura

Bizentetar ikastetxeen antolakuntza kulturak gure talde eta elkarteen bizikidetasuna eta bizitza era definitzen du, gure lan era, gure gatazkei aurre egiteko era, erabakiak hartzea, gure pedagogi estiloa, metodoak, formak eta gure estetika.

Horregatik hau da gure hautabidea:

- Eraberritzean oinarritutako kultura, etengabe hobetzea, energia, pertsonak eta taldeak.
- Norabide askotako azpiegiturak etekin altukoak, pertsonen autonomian oinarrituak.
- Baiezko paradigma, gatazkei aurre egiteko, gauzen alde ona sendotu eta negoziaketa sustatuz.
- Sinergietara orientaturiko taldeak, pertsonarekiko konfiantzan prestatuak.
- Adimen emozionaldun ikastetxeak, persona guztien ongizatea eta hazkuntza hobetuz, ez ikasleena bakarrik.



Gehiago jakin hobeto zerbitzeko



ESPAÑAKO BIZENTETAR HEZKUNTZAKO
IKASTETXEEN BEREZKO IZAERA

Hezkuntza jarduera

Printzipio Inspiratzaile hauek **pedagogia ireki, malgu eta eraikitzailean** oinarritutako hezkuntza jarduerari bizi ematen diote, ikasleen beharretara egokitzen delarik eta hezkuntza-kalitateak eskatzen dituen berrikuntzak barneraturik.

Printzipio horiekiko koherentziaz, ondoko alderdiok sustatzen ditugu:

Hezkuntza integrala

- Ikaslearen dimentsio guztien garapena, eman dezakeen guztia iritsi ahal izateko.
- Ikasgelatik haratago proiektasen dugu hezkuntza, eskolaz kanpoko jardueren bidez, bizitzarekin lotuz.

Desberdintasunekiko arreta

- Hezkuntza pertsonalizatua, ikaslearen adimena, interesak eta aurrerakuntzak kontuan hartuz.
- Pluraltasun etniko kultural eta erlijiosoa errespetuz heztea eta irekita egotea gizarte integratua sustatzeko.



Zerbitzu ikasketa

- Ebanjelioaren balioak kontuan izanik justizia eta gizatasun gehiagoko gizarte eraikitzeko konpromisoa.
- Zentsu kritikoz errealitatea aztertu.
- Ikaskuntzak prestatzen du ikaslea, hobeto zerbitzeko.

Metodologia eraberritzailea

- Proposamen pedagogiko berritzailea eta kalitatezkoa ikasle guztien esku.
- Metodologi berrikuntza motibazio, konpromiso eta ikasteko pasioa ikasleengan sustatzeko
- Estilo dinamikoa irakasleen etengabeko formakuntza eta gaurkotzearen bidez.



Harreman hurbilak eta lankidetzazkoak

- Senidetasunezko eskola-giroa eta horren baitan xalotasuna, abegia, konfiantza eta alaitasuna.
- Hezitzaileen presentzia hurbiltasun eta laguntza batean oinarritua, eta hezkuntza estilo koherenteaz.



Espiritual gaitasuna

- Proposatu, hezi eta lagundu kristau erlijioarekiko esperientzian.
- Jesusekiko fedearen proposamen esplizitua eta jarraipenaren apostua egin.



Eskola Elkarte

Gurasoen, irakasleen, ikasleen, administrazio eta zerbitzuetako pertsonen eta erakunde titularraren arteko harreman etengabeak, erantsunkidetasun giroan, koherentzia eta ugaritasuna ematen dio gure hezkuntza jarduerari, eta prestakuntza maila on bat lortzen lagundu.

Eskola Elkartean parte hartzeak ondoko konpromisoak hartzea esan nahi du.

- Gure gaitasun eta abileziak zerbitzu-izpirituz partekatu eta ematea.
- Komunitate bizi bat eraikitzen ahalegintzea, denok denon onura nahi dugularik.
- **ESKOLA ELKARTEAREN** partehartze eta integrazioa sustatu, komunitate irekia eta bitartekaria izateko.